

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko martxoaren 16an aurkeztuko du

L'ART EN GUERRE FRANTZIA, 1938-1947: PICASSOTIK DUBUFFETERA



Babeslea:

Fundación **BBVA**

GUGGENHEIM BILBAO

BBVA Taldea Guggenheim Bilbao Museoaren Babesle Estrategikoa izan da hura zabaldu zuten momentutik bertatik. Orain, gure Fundazioaren bitartez, atsegin handiz lankidetzan jarraituko dugu gaur egungo arte eta kultura erreferentzia nagusia den erakunde horrekin, zeinak nazioarte nahiz Espainia mailan proiektio itzela duen eta euskal gizartean sustrai sendoak dituen. Denboraldi berri honetan, anbizio handiko erakusketa bat aurkeztuko dugu: *L'Art en guerre. Frantzia, 1938–1947: Picassotik Dubuffetera*. Paristik ekarriko dute, eta arteak 1938tik 1947ra Frantzian bizitako egoera dramatiko eta konplexuari emandako erantzuna erakutsiko digu, hain zuzen, aldameneko herrialdeko artisten erreakzioa Bigarren Mundu Gerraren aurrean.

L'Art en guerre erakusketa artearen eta gerraren arteko lotura aztertzen duela esan genezake. Dokumentu- eta artelan-sorta zabal bat ikusgai izango dira horretarako; egileen artean XX. mendeko artearen izen ezagunenetako batzuk daude. Aldi hartan sortutako piezetan, garai hura bizi izan zutenen egunerokoa irudikatzen zaigu, hala nola, beren ametsak, amesgaiztoak eta nahiak; azken finean, garai hartako giro kognitiboa bistarazten da, ideien eta emozioen ingurukoa, edozein gizarte-sektoreetan biziari zentzua ematen laguntzen ziona. Baina gizarte-kaosa eta gogo-aldarte iluna nagusi baziren ere, garai oparo eta berritzailea izan zen artearentzat; izan ere, artea toki guztietan iraun zuen bizirik eta mota guztietako egoeretan ere sortu zuten artea artistek, bai ezkutuan bai gustu ofizialaren barruan. Ezbeharraren aurrean, artista askok amaieraraino jarraitu zuten lanean, eskura zutena erabiliz. Halaber, galeria-jabe batzuek ere ez zuten zalantzarik eduki arte modernoari babesa emateko, nahiz eta egoera dramatikoa izan. Artea, beraz, espazio/denboraren esparru horretan bizkortu egin zen. Bertan hartzen du itxura anitzeko bere bizitasun harrigarria, eta, izugarritzko desafioak izan ziren beste aldietan bezala, artea espresio bide bihurtzen da zeharo negatiboak diren egoerei aurre egiteko.

L'Art en guerre gogoeta teoriko batetik abiatzen da, eta artearen historiari ikuspegi edo inguratze orokorragoa, ia antropologikoa ematen dio. Bai horrek bai ikerketa-prozesuan aurkitutako dokumentuek —erakusketaren oinarri diren horiek— argitu egiten dute garai hartako historia ekaiztsua. Sekulako ahalegina eginda gero, emaitza bikaina izan da. Espero dugu horri esker, erakusketako bisitariak sorkuntza artistiko paregabe bezala, eta, aldi berean, beren begirada zabaltzea, garai konplexu eta dramatikoa hura hobe ezagut dezaten, eta artearen ikuspuntuaren bidez duela gutxiko Europako historia hobe uler dezaten.

Zorionak Guggenheim Bilbao Museoko profesional bikainen taldeari, Juan Ignacio Vidarte buru duena; baita Jacqueline Munck eta Laurence Bertrand Dorléac erakusketako komisarioei ere, zeren garai horretara ikuspuntu berritzaile batekin hurbiltzen jakin izan baitute, orain arteko ez bezalako. Era berean, gure esker ona adierazi nahi diegu, batetik, Musée d'Art moderne de la Ville de Paris museoari, eta, bestetik, erakusketa paregabe hau egin dadin artelanak maileguan utzitako pertsona juridiko eta partikular ugari.

Francisco González Rodríguez
BBVA Fundazioko presidentea

L'Art en guerre. Frantzia 1938–1947: Picassotik Dubuffetera

- Datak: 2013ko martxoaren 16tik irailaren 8ra
- Komisarioak: Jacqueline Munck (Arte arduradun nagusia, Musée d'art moderne de la Ville de Paris) eta Laurence Bertrand Dorléac (Arte-historialaria eta irakaslea Pariseko Centre d'histoire de Sciences-Po, CHSP, eta Frantziako Institute Universitaire)
- Babeslea: BBVA Fundazioa

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris-ek, Paris-Musées editoreak eta Guggenheim Bilbao Museoak antolatu dute [*L'Art en guerre. Frantzia 1938–1947: Picassotik Dubuffetera*](#). Erakusketak agerian jarriko du, nola Bigarren Mundu Gerran eta nazien Okupazioan Frantzian bizi izandako zapalketa-giro mehatxagarriaren aurrean, garaiko artistak kontsigna ofizialen aurka altxatu ziren, artearen edukia aldatuko zuten erantzun estetiko berritzaileen bidez.

BBVA Fundazioaren babes aipagarria duela, erakusketa paregabe honetan, ehun bat artistaren 500 lan baino gehiago bistaraziko dira, agerian jarriko dutenak nolakoa izan zen sortzaile horien erresistentzia eta erantzuteko modua, "gerrari gerra eginez", eskasiak inposatutako forma eta materialak erabiliz; baita askatasun-adierazpen ororen kontrako jarrerarik bortitzenak zituzten lekuetan ere.

Urte horietan zehar, eta botereak egindako ahalegin militarren aurrean, ordura arte ikusi gabeko erreakzio automatikoa izan zuten artistek. Etengabeko sortzaileak izanik, materialak aldatu behar izan zituzten, egoeraren nondik norakoa aditzera emateko eta kontsigna ofizialetatik ihes egingo bazuten; baita askatasun-adierazpen ororen kontrako jarrerarik bortitzenak zituzten atxilotze-esparruetan ere. Bertan ere, ez zioten sortzeari utzi.

Artista handien artelanak egongo dira erakusgai, hala nola, hauenak, besteak beste: Pierre Bonnard, Victor Brauner, Alexander Calder, Salvador Dalí, Óscar Domínguez, Jean Dubuffet, Marcel Duchamp, Raoul Dufy, Max Ernst, Jean Fautrier, Alberto Giacometti, Julio González, Vasily Kandinsky, Paul Klee, Fernand Léger, René Magritte, André Masson, Henri Matisse, Henri Michaux, Joan Miró, Francis Picabia, Pablo Picasso, Pierre Soulages, Nicolas de Staël, Joseph Steib, Yves Tanguy, eta Wols. Horiekin batera, bizirik irauteko lanak erakutsiko dira, indar etsiaren erakusle, artistek ezezagunak eginak eta ezezagunak publiko zabalarentzat. Guztira hamabi sailez osatutako ibilbidea da, Museoaren bigarren solairuan barrena.

Erakusketak, Jacqueline Munck eta Laurence Bertrand Dorléac erakusketako komisarioek dioten bezala, balio izango du agerian uzteko "historiaren itzalean, etxebizitzan, tailerren, babeslekuen, kontzentrazio-esparruen, kartzelen eta ospitale psikiatrikoen intimitatean gelditu zen guztia".

Historia

L'Art en guerre erakusketaren ibilbidea honako gertaerei eskainitako saila du lehenengoa: batetik, 1940an Frantziak Indar armatu alemanen kontra (Wehrmacht) galdu eta gero etorri zena; eta, bestetik, urte bereko ekainaren 22an Rhetondes-eko armistizioa izenpetu ondoren gertatu zena, Frantzian diktadura bikoitza ezarri baitzen, hau da, naziena, herrialdearen bi herenak hartu zituena; eta Vichyko

gobernuarena, totalitaria nahiz kolaborazionista okupatzaileekin, nagusiki Frantziako hegoaldea kontrolatzen zuena.

Hirugarren Reicharen gutziahaltasuna jazarpen-politika erasotzaile baten bidez agertzen zen, juduak, atzerritarrak, komunistak eta masoiak jomugan. Baita beste edonor ere, baldin eta estatuaren etsaitzat jotzen bazuten. Garai tragikoa izan zen hura, gizarte osoari eragin ziona, bereziki gazterari eta komunikabideei; azken horiek propaganda intentsiboaren galbahetik pasa behar zuten, bai naziena bai Vichyko gobernuarena. Kale itsu horren baitan, hasieran oso kide gutxi zituen "Erresistentzia" bere burua antolatzen ari zen, hala Frantzian nola atzerrian, ezkutuko kanala eta mugimenduen bitartez, hain zuzen. Erresistentziaren ekintzak gehituz joan ziren, harik eta 1944an Pariseko liberazioa lortu zen arte.

Gustu ofiziala

Okupazio garaian nagusi zen gustu ofiziala Arte Modernoko Museo Nazionalean erakusten zen, arteari eskainitako sailean. Museo hori 1942ko abuztuan zabaldu zuten, 1937an eraikitako Tokio-ko jauregiaren barruan.

Pierre Ladoué zuzendari lanetan zela (Jean Cassou bilbotarra arrazoi politikoengatik kargutik kendu ondoren), Okupazioaren zentsura eta autozentsura bistakoak ziren Museoan. Izan ere, arte "garbi" eta kontsentsuzkoa baino ez zegoen erakusgai, "frantses" peto-petoa zena, eta goi mailako artistak baztertu egiten zituena, esaterako, Jean Arp, Constantin Brancusi, Marcel Duchamp, Max Ernst, Vasily Kandinsky, Paul Klee, Joan Miró, Pierre Mondrian, Pablo Picasso eta abar. Halaber, oinarritzko arte-joerak, hots, fauvismoa, kubismoa, dadaismoa, espresionismoa, surrealismoa edo abstrakzioa, ia ez zeuden erakusgai.

Ohorezko tokian, ordea, emakumeen irudikapenak zeuden (alderantziz proportzionalak bertan zeuden emakume artisten lanekin), biluziak, erretratuak, atletak eta erlijio-gaiak, Paul Belmondo, Charles Despiau, Raoul Dufy, Kees Van Dongen edo Henry de Waroquier bezalako artisten eskutik. Artelanok onak ziren ordena berria exijitzen zuen erregimenarentzat.

Surrealistak

Pariseko bizitza artistikoa, "jendaila" garbitu eta gero, ilun eta goibel bihurtu zen, 1938ko urtarrilean Arte Ederren galerian egindako Nazioarteko Erakusketa Surrealistak iragarri zuen bezalaxe. *L'Art en guerre* erakusketan horri eskainitako sail bat dago.

André Breton eta Marcel Duchamp-ek Parisen antolatutako erakuseta hartan –63 artistek egindako 314 lanez osatua, horien artean Bretón bera, André Masson, Salvador Dalí eta René Magritte-renak, besteak beste– agerikoa zen, alde batetik, mugimendu surrealistaren goren aldia. Horrez gain, taxututako giro ilun eta artetegarria gerraren izugarrikerien halako iragarle modukoa izan zen.

Okupazioa eta gero, erakusketan artelanak izan zituzten artista batzuk sasia edo erbestean bizi izan ziren; beste batzuek, aldiz, Hans Bellmer-ek edo Marx Ernst-ek kasu, zorte txarragoa izan eta atxilotze-esparruetara eraman zituzten. Hala ere, inork ez zion sortzeari utzi, erresistentzia modura inposatutako errealtatearen aurrean.

Esparruetan

Frantzian, ekoizpen artistikoa ez zen eten. Ezta atxilotze-esparru frantsesetan ere, duintasun- nahiz askatasun-gabetze zitalenen gertaleku. Frantziako agintariek sortu zituzten, hasiera batean Gerra Zibila eta gero Francoren Espainiatik iheska zihoazen errepublikanoak hartzeko. 1938 eta 1946 urtearen artean, 600.000 gizon, emakume eta ume Frantzian zeuden 200 atxilotze-esparruetara eraman zituzten.

Gerra hasteaz batera, Gobernu frantsesak baimena eman zuen nazien kontrakoak nahiz aldekoak atxilo zituzten. Baita Hitlerren Alemaniaren hurbileko ziren herrialdeetako pertsonak, komunistak, frantsesak, eta preso arruntak ere. Atxilotuen artean, Hans Bellmer, Max Ernst eta Wols artistak zeuden, "jendaila kanpotartzat" jo baitzituzten. Alemanen Okupazioaren ondoren, juduak ere esparru horietara eramaten hasi ziren. Gero, horietako asko Auschwitz-era deportatu eta bertan sarraskitu zituzten.

Esparru horietan sortu zituzten artelanak zein gauzakiak (biltzeko papera, lata, pospolo, egur-, burdin-edo hezur-zatiekin eginak), garai horretako aztarna paregabeak izango dira betiko.

Erbestean, gordeleketan eta sasia

Dagokigun erakusketan ere badago gune bat berariaz honako hauei eskainia: gerra piztearekin erbestera joan zirenei eta gaizki deitutako "zonalde librean" bizitzera joan zirenei, alegia, Vichyko gobernuaren agindupeko Frantziako Hegoaldean. Gaur egun ere, hainbat hiri, herri eta auzo, esaterako, Dieulefit, Sanary-sur-Mer, Grasse eta Air-Bel, azken hori Marseillan, ezagunak dira bertan sortu ziren komunitate sortzaileengatik.

Testuinguru horretan, goraiatzeko modukoa da Varian Fry kazetari estatubatuarraren lana. AEBetako Gobernuak Frantziara bidali zuen Larrialdiko Erreskate Batzordearen ordezkari gisa eta honako misioarekin: naziek jazarritako artista nahiz intelektualak, atzerritarrak, antifaxistak eta juduak herrialdetik ateratzen ahalegintzea. Fry-k modu heroikoan herrialdetik ihes egiten lagundu zituen 2.000 bat lagun artean, Joan Miró, Marc Chagall, Salvador Dalí, Marcel Duchamp, Max Ernst, Moïse Kisling eta Fernand Léger zeuden.

Zorte txarragoa izan zuten Frantzian harrapatuak geratu ziren artistek, beti ezkutuan egotera behartuta baitzeuden gerraren amesgaiztoa noizbait kontatuko bazuten. Horien artean Joseph Steib alsaziarra dugu; lortu egin zuen nabarmendu gabe pasatzea eta haren lan subertsiboak nazien begirada inkisidoretik ezkututzea. Artelanok nazien erregimenak eta agintariek egindako izugarrikeria eta umiliazioaren erakusle dira. Ezten zorrotza dute, Hitlerren kontra bereziki, Steib-ek hura barregarri uzten baitu, antikristo nazkagarri eta zital modura irudikatuz.

Ereduzko maisuak eta Frantziako tradizioaren margolari gazteak

Bizitza kulturalaren kontrako giro batean, ereduzko maisuek (Pablo Picasso, Henri Matisse eta Pierre Bonnard besteak beste) beren burua babestu zuten: beren tailerretan itxi ziren edo Frantziako hegoaldera alde egin zuten, nazien jazarpenetik babesteko. Margolari horiek Okupaziopean sortu zituzten artelan gehienak gerra amaitu eta gero baino ez ziren jendaurrean erakutsi. Beste batzuk, André Derain margolari ezagunak adibidez, legitimitatea galdu zuen, 1941ean, beste artista batzuekin batera, Alemania nazia bisitatzeko gonbitea onartu zuen eta. Bidaia Arno Breker-ek antolatu zuen, hain zuzen, Hitlerren eskultore kutunena.

Testuinguru horretan, eta maisu handi horien modernitate-lezioak berriz hartuta, «Frantziako tradizioaren margolari gazteak» mugimendua sortu zen, 1941ean Braun arte-galerian beren lehen erakusketa egin eta gero. Talde hori honako artistek osatu zuten: Jean René Bazaine, Francisco Bores, André Fougeron, Charles Lapicque, Jean Le Moal, Édouard Pignon eta Alfred Manessier, besteak beste. Helburu zuten gauzen egoerari modu sinbolikoan “eustea”, betiere kolore biziko, ez figuratibo eta abstrakziotik gertuago zeuden lanen bidez, inspirazio-iturri Erdi Aroko artea eta arte erromanikoa hartuta; baita Pierre Bonnard, Georges Braque, Henri Matisse eta Pablo Picasso-ren tradizio modernotik ere edan zuten; beraz, kontraste biziaren zeuden garai horretan nagusi zen artearen “ordena artistikoaren” aurrean.

Picasso bere estudioan

Giro gaizto horren erdian, Pablo Picasso, zeinari erakusketan sail oso bat eskaintzen zaion, Okupazioaren kontrako erresistentziaren egiazko sinbolo bihurtu zen. Herritartasun frantsesa lortzeko egin zuen eskaera 1940an atzera bota ondoren, artistak uko egin zion Estatu Batuetan erbesteratzeko aukerari, eta Grands-Augustines kaleko tailerrera itzuli zen. Bertan margotu zuen *Gernika*, 1937an.

Haren garaikide batzuk ez bezala, Gestapok Malagako margolaria jazarri eta baztertu zuen —beste batzuek lanak erakusgai jartzen eta enkarguak jasotzen zituzten—. Haren lanak, aldiz, Vichyko erregimenak eta naziek “arte galdu”tzat jo zituzten eta Pariseko giro artistikoaren autozentsuraren menpe zeuden.

1942an, Maurice de Vlaminck margolari aleman zaleak honako hau leporatu zion Picassori: “Frantziako pintura arrastaka kale itsu hilgarrienera eraman izana, nahasmendu izugarri batera”. Picassoren erantzuna indarberritzea eta askoz maisulan gehiago sortzea izan zen: minez iraulkatutako emakumeen erretratuak, natura hil goibelak, gurutziltzaketak edo gerraren izugarrikeria irudikatzen zuten biluzi dramatizatuak, bat-batean egindako eskulturak eskura zituen baliabide urriekin, *Zezen-burua*, adibidez; eta Picassoren maite bizitza osatzen zuten emakumeen erretratu bikainak, hala nola, Marie-Thérèse Walter, Dora Maar edo Françoise Gilot-enak.

Frantzia alemanen Okupaziotik 1944an askatu eta gero, Picassoren obra goratu egin zuten eta erresistentziako ikur bihurtu.

Jeanne Bucher arte-galeria

Pariseko giro artistiko aztoratuan, Okupazioak eta Vichyko erregimenak salerosle juduak erbesterako bidea hartzera edo sasira joatera behartu zituzten. Beraz, gutxi izan ziren biziki ausart jokatu eta beren artistekiko leialtasun handia erakutsi zuten arte-galeriak.

la dirurik gabe, 1872an jaiotako Jeann Bucher alsaziarrak arte-galeria diskretua zabaldu zuen, Boulevard Montparnasse-n, lorategia zuen etxe txiki bateko lehen bi solairuetan. Bertan, Okupazioak bazter utzitako artea erakusten zuen, artista-multzo zabal batek egina, esaterako, André Bauchant, Francisco Bores, Louis-Auguste Dechelette, Vasily Kandinsky, Paul Klee, Henri Laurens, André Lansky, Louis Marcoussis, Max Ernst, Maria-Elena Vieira da Silva, Anton Prinner edo Nicolas de Staël-ek.

Okupazio osoan zehar, bere betiko jokabide altruistari eutsita, haren ustez talentua zuten artistei laguntzen jarraitu zuen. Halaber, lagundu egin zien bai 1939an erbesteratutako espainolen seme-alabei, bai atxilotze-esparruetan bahituak zeuden atzerritarrei, liburuak eta janaria bidaltzen baitzien.

Esparruetan eta espetxeetan

Urteak aurrera joan ahala, eta Frantziako esparru eta kartzeletan gero eta preso gehiago zeudenez gero, bizi-baldintzak ere gogortzen joan ziren. Atxilotuentzat, artelan horiek sortzea modu bakarra zen bizitza krudel bezain zentzugabe bati zentzua eman ziezaioten. Eskura zituzten baliabide urriekin, gatibuek gauzaki harrigarriak sortu zituzten.

Lan horietako batzuk, egiazko askatasun-irrikak eta itxialdiaren berezko aurkariak, azken sorkuntza-arrastoak dira, deportatu eta heriotzaren esparruetan azken hatsa eman zuten artista horiena, hain zuzen. Horien artean, Charlotte Salomon, Otto Freundlich, Felix Nussbaum eta Horst Rosenthal ditugu. Erakusketaren sail honetan, beren obrak bizirik segitzen du.

Askapena

Pariseko liberazioa gertatu eta gero, 1944ko abuztuan, Frantziako gizarteak dilema bat zuen: poza erakustea lau urteko zapalkuntza eta sufrimendua pairatu ondoren ala laborria agertzea gerran egindako benetako izugarrikerien aurrean. Azken horiek bat-bateko argazki bortitzen bidez ikusten ziren, adibidez, Parisera itzuli ziren deportatuei Lutetia hotelean 1945ean ateratakoak.

1944ko udazkenetik aurrera, Frantziako Alderdi Komunista, okupatzailearen eta Vichyko erregimenaren aurka aktiboki aritu izanak legitimatuta, kultura-jarduerak garbitzeko batzordea zuzendu zuen, Pablo Picassoren nagusitasunaren pean. Nazismoarekin konpromisoa hartu zuten artistak borondate onez epaitu zituzten, zeren berez sineste politiko gutxi baitzuten nazismoa besarkatzeko. Azkenean, lotsaizunera eta aldi baterako beren lanak ez erakustera kondenatu zituzten.

Lau urteko murrizketen ondotik, Liberazioa 1944ko Udazkeneko Erakusketan nabaritu zen. Bertan, tradizio modernoko arte guztiari egin zioten omenaldia. 1939tik aurrera sortutako ehun bat artelan ziren, erakusten zutenak nazien Okupaziopean ere bazela sormen mundu libre bat eta kontzesiorik egin gabea. Erakusketa hartan, Picassoren lanak toki berezia hartu zuen; izan ere, margolaria erresistentziako heroi bat bezala aurkeztu zuten.

Estutasuna ondoren

Erakusketan ere tartea dago ikus dezagun artistek nola lortu zuten itxialdi-urteak atzean uztea; gerrak utzitako traumak beren lanetan hustuz egin zuten hori.

Bernard Buffet-en, Olivier Debré-n, Hans Hartung-en, Pierre Soulages-en, Nicolas de Staël-en edo Jean-Paul Riopelle-ren lan goibel eta ilunak; Camille Bryen-en pintura informalistak; Wols-en atzamarkada etsiak edo André Masson-en *Pizti-zuloa* (*Le Terrier*, 1946) ditugu adibide batzuk bai askotariko adierazpide artistikoari buruzkoak, bai emandako erantzunenak. Artelanok guztiok ere izan nahi zuten aterabide bat garai hartako “amesgaizto maltzur eta izoztuari” ihes egiteko; alegia, basakeria ohiko arau bihurtu zen garaiari.

Anartistak

Erakusketa Anartistei eskainitako sail batekin amaitzen da (“anartista” hitza Marcel Duchamp-ek sortu zuen). Ezarritako ordenaren aurka matxinatu ziren artistak ditu gai sailak. Sorkuntzaren bidez, ezarritako ordenaren aurka altxatu ziren, eta zabaldu egin zuten artea, erabateko poesia eta jarduera artistiko berri bat egiteko. Anartistak ere historiaren parte dira, mendebaldeko artearen historiarekin paraleloan

doana: Primitibismoarena ere bada historia hori, hots, izatearen eta jatorrizko pentsamenduaren bilaketa, betiere mito, amets, basatiari buruzko interes, joko eta zientziaren bidezkoa. 1945ean, Jean Dubuffet-en *Mirobolus, Macadam et Cie, hautes pâtes* erakusketak zalaparta handia sortu zuen; izan ere, eguneroko gauzak erabateko zakarkeriaz eta arinkeriaz irudikatu zituen, esaterako, *Botere-nahia (Volonté de puissance, 1946)* eta *Koipe beltzaren erretratua (Portrait Cambouis, 1945)* lanetan.

Halaber, sail honetan ospitale psikiatrikoetan zeudenek egindako lanak daude erakusgai. Pazienteek eskura zituzten materialekin egindako artelan horiek ez zuten zerikusirik Arte Ederretako Eskoletan zeuden kanon akademizistekin. Liberazioa eta gero, 1946an, Parisen, Gaston Ferdière irakasleak Sainte-Anne ospitale psikiatrikoko pazienteek egindako marrazkiak erakutsi zituen. Zoritarrez egileen berri eman ez bazuten ere, lan horiek oso preziatuak izan ziren paziente horiek ikustera joaten ziren artista modernoen begietan, zeren, beren irudiz, artelanok kulturaren irudikapen birjina baitziren, oso gertu inkontzientearen esploratu gabeko bihurtuneetatik eta onirikoaren denetik.

Garaiko artea eta haren testuingurua

L'Art en guerre gune didaktiko batekin biribiltzen da, non testuinguruan jarriko diren 1938tik 1945ra bitarte Frantzia izandako gertaerak, ikuspuntu historiko, politiko, artistiko eta kultural batetik. Izan ere, gertaera horiek eragin positiboa nahiz negatiboa izan zuten jarduera artistiko desberdinetan eta erakusketan dauden lanak testuinguruan kokatzeko balio dute.

Katalogoa

Katalogoak irudi asko ditu eta Laurence Bertrand Dorléac eta Jacqueline Munck komisarioen zuzendaritzapean argitaratu dute. Hainbat saiakera ditu erakusketaren sailen inguruan, eta, alfabeto zabal modura, 200 sarrera motz biltzen ditu, garai hartako testuinguru artistiko eta kulturalari buruzkoak, nazioarte mailako ehunetik gora autoreren eskutik.

Azaleko irudia:

Pablo Picasso

Besaulki batean eseritako emakumea (Femme assise dans un fauteuil), 1941

Olio-pintura mihise gainean

73 x 60

Henie Onstad Kunstsenter, Høvikodden, Noruega

© Henie Onstad Art Centre, Norvège/Photo Øystein Thorvaldsen

© Succession Picasso 2013

Informazio gehiagorako:

Erakusketaren iragarkia ikusteko, klikatu [iragarkia](#)

Informazio gehiagorako [microsite](#)-ra jo dezakezu.

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel. +34 944359008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Prentsa irudiak:
L'Art en guerre. Frantzia, 1938-1947: Picassotik Dubuffetera
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

André Masson (1896–1987)

Itsasoaren hondoa (Le Fond de la mer), 1937

Harea, oskolak eta algak ohol gainean

27 x 35 cm

Bilduma pribatua

© VEGAP, Bilbao, 2013



Joseph Steib (1898–1957)


Konkistatzailea (Le Conquérant), 1942

Olio-pintura larru sintetikoaren gainean, kartoi gainean itsatsia

89 x 59,5 cm

Bilduma pribatua, Frantzia

© Joseph Steib Photo © Klaus Stoeber



Charlotte Salomon (1917–Auschwitzeko kontzentrazio-esparrua, Polonia, 1943)

Titulurik gabea (4917), 1940-42

Gouachea paper gainean

32,5 x 25 cm

Charlotte Salomon Foundation, Joods Historisch Museum, Amsterdam

© Collection Jewish Historical Museum, Amsterdam

© Copyright Charlotte Salomon Foundation



Domela-Nieuwenhuis [César Domela] (1900–1992)

Erliebea 14. zk. (Relief n°14), 1937


Margotutako zura, letoia, kobre gorria, metakrilatoa eta altzairua

78,5 x 61 x 12 cm

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris

© Musée d'Art Moderne / Roger-Viollet

© VEGAP, Bilbao, 2013



Jean Fautrier (1898–1964)

Judutarra (La Juive), 1943

Olio-pintura mihise gainean

65 x 73 cm

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris

Artistaren dohaintza, 1964

© Musée d'Art Moderne / Roger-Viollet

© VEGAP, Bilbao, 2013



Hans Hartung (1904–1989)

T 1946–16, 1946

Olio-pintura mihise gainean

145 x 96 cm

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris

Legatua: Maurice Girardin doktorea, 1953

© Musée d'Art Moderne / Roger-Viollet

© VEGAP, Bilbao, 2013



Germaine Richier (1904–1959)

Marisorgina (La Mante), 1946

Eugène Dodeigne-ren oinarria

Brontzea

158 x 56 x 78 cm

Eskaintza: Galerie Jacques de la Béraudière, Geneva

© Galerie Jacques de la Béraudière, Genève

© VEGAP, Bilbao, 2013



Victor Brauner (1903–1966)

Topaldia Perrel kaleko 2, bisean (La Rencontre du 2 bis rue Perrel), 1946

Olio-pintura mihise gainean

85 x 105 cm

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris

Dohaintza: Société des amis du musée d'Art moderne de la Ville de Paris, 1988

© Musée d'Art Moderne / Roger-Viollet

© VEGAP, Bilbao, 2013



Jacques Villeglé (1926)

Alanbrea-Kortsarioen galtzada, Saint-Malo (Fils d'acier-Chaussée des Corsaires, Saint-Malo), 1947ko abuztua

Altzairuzko haria (2 osagaidun eskultura)

63 x 49 x 9 cm

Musée national d'art moderne, Centre Pompidou, Paris

© Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN / Georges Meguerditchian

© VEGAP, Bilbao, 2013



Otto Freundlich (1878– Majdanekeko kontzentrazio-esparrua, Polonia, 1943)

Arrosa-leiho II (Rosace II), 1941

Gouachea kartoi gainean

65 x 50 cm

Musées de Pontoise – dohaintza: Freundlich, Pontoise, Frantzia

© Musées de Pontoise

© Imec Images

Otto Freundlich



Anton Räederscheidt (1892–1970)

Emakumeen esparrua (Gurs) [Camp de femmes (Gurs)], 1940

Gouachea paper gainean

65 x 46 cm

Bilduma pribatua, Kolonia

© DR

© VEGAP, Bilbao, 2013



Victor Brauner (1903–1966) eta beste batzuk

Taldeko marrazkiak, 1941

Koloretako arkatzak eta tinta paper gainean

32,4 x 49,7 cm

Collection David et Marcel Fleiss, Galerie 1900–2000, Paris

© Galerie 1900-2000, Paris

© VEGAP, Bilbao, 2013



Victor Brauner (1903–1966)

Sufrimendua, sufrimendua (Souffrance, souffrance), 1941

Olio-pintura mihise gainean

46 x 38 cm

Musée d'Art moderne de la Ville de Paris

Legatua: Jacqueline Victor Brauner andrea, 1988

© Musée d'Art Moderne / Roger – Viollet

© VEGAP, Bilbao, 2013



Pablo Picasso (1881–1973)

Besaulki batean eseritako emakumea (Femme assise dans un fauteuil), 1941

Olio-pintura mihise gainean

73 x 60 cm

Henie Onstad Kunstsenter, Høvikodden, Norvegia

© Henie Onstad Art Centre, Norvège/Photo Øystein Thorvaldsen

© Succession Picasso 2013

